

HITZ EGITEN HASTEKO LAGUNTZA: LEGITIMITATEA SENTIARAZTEA ONDORIO NAGUSIAK

Dinamizatzaileak: Elias Zumalde (Emun), Pablo Suberbiola (Soziolinguistika Klusterra)

Bideoa: Estibaliz Amorrortu (Deustuko Unibertsitatea)

1) DINAMIZATZAILEEK EGINDAKO SARRERA:

- Esti Amorrorturen [bideoa](#)
- Pablo Suberbiolak legitimitatearen gainean emandako ideiak/azalpentxoak
 - Terminoaren jatorria: “legearen araberakoa” (conforme a la ley). Gaur egun: idatzi gabeko legearen araberakoa, onarpen soziala duena.
 - Hitz egiteko legitimitatea > harremana > beraz onarpena bi aldetara: hitzunak sentitzen duen legitimitatea (onarpena), eta solaskideek (entzuleek) ematen duten legitimitatea (onarpena, egokitasuna).
 - Legitimitatea euskara erabiltzeko:
 - Zein egoeratan/esparrutan/funtziotan da legitimo (egoki, onargarri) euskaraz egitea eta zeinetan ez
 - Finkatutako praktikak. Sozializazio prozesua (ikasketa gorpuztua)
 - Maila sozialean zein harreman ezagunetan: maila sozialean, ikasitako arauak. Harreman ezagunetan, finkatuta dugun harremantzeko modua (hizkuntza barne)
 - Nolako euskara erabiltzea da legitimo (egoki), eta nolakoa ez.
 - Edozein hizkuntzen arauak: erregistroa, solaskideak, egoera...
 - GEHI sozialki hizkuntza ahula izateak gehitzen dizkion baldintzapenak:
 - Ikasten ari direnak, ohiko erabilerarik ez dutenak, erdoilduta dutenak... Akatsak, mantsotasuna, gaizki-ulertuak, “kamustasuna”... noraino onargarri? Nola konpentsatu? (Etxenike: Ferraria eta Seat Ibiza)
- Makrotik mikroenerainoko gaia.
 - Makrotik (lehendakari baten diskurtsoa (herritar orori), mikroeneraino (bi adiskide edo ezezagunen arteko elkarrizketa). Lotura, bai goitik behera eta bai behetik gora.
- Ajudeu-me:

Aleixandreren erreferentzia prentsan:

<http://www.racocatala.cat/opinio/article/34318/laprenentatge-catala-malgrat-catalans>

Bideoa: <http://www.tv3.cat/videos/4943471/Ajudeu-me>

Liburua: <http://volianaedicions.blogspot.com/2014/02/ajudeu-me-el-crit-duna-llengua-que-vol.html>

2) LAN TALDEETAN ESANDAKOAREN LABURPENA

Legitimazioaren gaiak euskararen normalizazioa lantzeko beste ikuspuntu bat jarri du mahai gainean. Orain arte ez diogu alderdi honi aparteko arretarik eskaini, ez behintzat izen horrekin. Tira egin eta sakontzeko aukera asko eskaintzen ditu.

Legitimazio linguistikoa erabilerarekin erabat lotuta dago. Erabilerak sentiaraziko du hiztuna legitimo. Hortaz, erabilera eremuak dira landu beharrekoak.

Erabilera eremuak sustatzeko euskal hiztunen gaitasuna landu behar da. Euskal hiztunen portaera linguistikoak eragin zuzena du solaskidearen legitimazioan

Legitimazioa eta derrigortasuna ez daude borrokan. Zenbait egoeratan/baldintzatan euskara erabiltzea eskatzea legitimoa da, batez ere, kudeaketa publikoa eskatzen duten egoeratan (Hizkuntza eskakizuna laguntza publikoaz atera duten langileen zerbitzua...)

Ikasketa prozesuan erabilera kontzeptua txertatu behar da.

Legitimazio soziala da landu beharrekoa. Arau sozialek markatzen dute gure portaera, sarritan, gehienetan, ez dago idatzita, baina giroan dago (Edukazio txarrekoa, aurpegi “arraroa”..) . Arauak esplizitatzeak babeseta eta onarpena ematen dio hiztunari. Hizkuntza kontratuak sustatzea interesgarria izan daiteke egoera askotan aurrera egin ahal izateko.

Egoerak, inguruneak eta hiztun motak dira legitimazioan eragin zuzena duten aldagaiak. Hauen arteko lanketak aurrera egiteko bideak zabaldu ditzake.

Legitimazio positiboa eta legitimazio negatiboa. Hainbat egoera, portaera... “deslegitimizatu” beharrekoak dira (Euskararen erabileraren kontrako portaera, diskurtso, arau...)

3) SORTUTAKO IDEIAK

● KALITATEA/ERREGISTROA

- Egoeraren arabera eta hizkuntzaren arabera edozein euskara maila ezin da legitimatu
- Obsesioa zuzentasunarekin (Zenbateraino onartzen dira ikasten ari direnen akatsak?)
- Aldahitz: lankideekin aldatu dutenak ez dira hasi “perfekto” ikasitakoak, akatsekin hasi dira
- Lan eremuan kalitatea bermatu nahi eta ingurune zurrinak aurkitzen dira, legitimitatea lortzea zaila da
- Euskaldun berriaren etiketa ez da inoiz kentzen. Euskara ezberdina duzu, hobe erderaz!
- Hika egin nahi... non dago muga?
- Hika berpiztu behar dugu
- “Zuk euskara arraroa egiten duzu”

ERABILERA

- Euskara ikasteko eskoletan motibazioa lantzea komeni da (Helburua erabilera handitzea da) Ikasten ari direnak euskaraz eroso sentitzeko moduak bideratzea
- Erabileraren bidez legitimizazio espazioak geureganatu
- Erabilera esparruak sortu behar dira

ARAU SOZIALA

- Arau-sozialak esplizitatu behar dira: zeintzuk diren arauak, mugak. "Etxe honetan zeintzuk dira arauak"
- Inguruaren babesa sentitu behar dugu, euskaraz ari garenean eroso sentitzeko
- Legitimitatean norbanakoaren esku dago. Nolabait gizarte mailan adostu beharra
- Eguneroko harreman naturala duten talde naturaletan "arau sozialak" esplizitatuta, badago terreno bat aurrera egiteko
- Arau sozialak esplizitatzeko eta zehazteko beharra
- Legitimizazio sozialean eragiteko masa kritikoak aktibatzeke moduak sortu herrietan eragiteko
- Norbanakoaren legitimitateaz hitz egin beharrean (eta gehiago hitz egin beharko genuke), hitz egin dezagun legitimizazio sozialaz
- Harremanak; legitimoa da tentsioa sortzea?
- Nola lortu espazioak? Postura erradikalagoak ere behar dira, euskaraz egin erderaz erantzutea onartu
- Ikaste prozesuan euskaldun berri edota euskaldun sentitzera iristeko zer gertatu den aztertu behar da Nola kudeatzen dute euren hizkuntza ezagutza?
- Araua legitimoa dela sentitu behar dut
- Arauak landu behar dira
- Arauaren babesa eroso sentitzeko
- Toki erdaldun batean euskaraz egiteko ni legitimo sentitzeko arau sozial hori landu egin behar da (Egin dezakezu ez da ezer pasatzen) Ez da dena hiztunaren gain utzi behar
- Muellea, bueltatzearen garrantzia (babesa, kontratua)
- Harreman gune jakinetan arau sozialak esplizitatzea aurrerapausoak emateko interesgarria izan daiteke.
- Eremu formaletarako mugak adostea. Zer da formalean legitimoa?
- Alde batera zein bestera, hiztun berrien kasuan, legitimitatea norberak eta bere inguruak eman behar dio.

- Nik euskaraz egingo dizut; ulertzen didazu? Ba, nahiko
- Diru publikoa gastatu denean, erabilera eskatu behar da
- **IKASTE PROZESUA**
 - Euskalduntze prozesuan daudenekin legitimizazioaren gaia landu beharra
 - Euskaltegietan legitimitatea lantzeko egitasmoak landu
 - Euskara ikasteko motibazioa heterogeneoa da; ia inoiz ez da arrazoi bakarra
 - Prozesuan zehar motibo horiek aldatzen joaten dira, eboluzio bat ematen da
 - Ikasten ari dena babestuta sentitu behar da
 - Erosotasuna ez da lortzen praktikarik gabe
 - Legitimo sentitzeko eroso egon behar da
- **GAITASUN KOMUNIKATIBOAK**
 - Euskaldun zaharrek ere esfortzua egin behar dute. Dakigunok egin behar dugu hausnarketa, egiteko moduak aldatu behar ditugu, gaitasun komunikatiboak landu
- **EREDUGARRITASUNA / KOHERENTZIA**
 - Donostia 2016: hartutako erabakiak eta azaltzeko emandako argudioek legitimitateari kalte handia.
 - Leku eta pertsona batzuek badute “marka”. Horien eragina handia da.
 - Aldarrikatzea legitimoa dela euskaraz hitz egitea, transgresioaren sentimendua gainditu behar dugu
- **PORTAERA LINGUSTIKOAK**
 - Hitzuna legitimo egite horretan entzuleek dute garrantzia
 - Hitzunen erlaxazioa (“gingo dute”)
 - Ni nire hizkuntzarekin
 - Portaera berriak sendotzeko badugu zer ikasi.
 - Euskaldunok eskuzabal euskaldun berriekin
 - Londresen nire 20 hitzekin legitimo sentitzen naiz; zergatik hemen ez?
 - Txaloak behar dira eroso sentitzeko? Esfortzua errekonozitu behintzat bai
 - Gai honi dagokionez denok dugu zeregina. Landu beharreko arloan, bakoitzak bere eremuan eta ahal duen arloan
 - Jendeari beharra sortzea
- **BESTE BATZUK**
 - Legitimitatea hizkuntzaren ezagutzarekin lotzen da, baina nire ustez beste elementu askok eragiten dute legitimitatean
 - Gakoak identifikatu behar dira eragin ahal izateko

- Legitimitatearen aspektuak anitzak dira
- Derrigortasuna negatiboa da
- Euskaldunok konplexuak kendu behar ditugu, terrenoa galtzen ari gara konplexuagatik
- Oinarri kulturala/ folklorismoa
- Legitimitatearena ideia indartsua da
- Etorrinek plus bat behar dute euskal hiztun moduan onartuak sentitzeko
- Kulpaz beteta bizi gara, ez digu aurreratzen uzten

